

noaia



**TicketBai sistemaren
etorrera prestatzen ari dira
herriko merkataria**

**Ostiral honetan 'Zirkobira',
Artzabaldik abiatuta**



**Usurbil 1936 elkartea:
“Irubiden izugarrikeriak
gertatu ziren gerra garaian”**

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea zabalik

(aldeaz aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

• HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarritzko kultur formakuntza: Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.

Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Oinarritzko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)

• DBH-ko titulua (4 hilabeteko ikastaroak)

• EUSKARA TAILERRA (MAILA 0, 1 ETA 2)

• GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT

• IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza

*Eskuran, elikadura ohiturak zure neurrira
aldatzen lagunduko dizugu!
Zatoz! Eskura gaituzu!*

*Diabetesa, hipertentsioa, gizentasuna,
elikadura eta kolesterol arazoak.*

*Zubiaurrenea 1 -1°C, Usurbil
Aurretikako zitarekin:*

688 843 696

www.eskuradietetika.com

noa.ua



Askorako eman dute 25 urtek. 1996. urtean usurbildar askoren inplikazioari esker izugarritzko bultzada izan zuen Noa.ua Kultur Elkartearen sorrerak.

Herria Herritik egiteko bultzada jaso zen usurbildarren bihotzetik eta eskuz esku mantendu da indar hau denbora guzti honetan zehar.

HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herritik egiten jarraitzeko erronkan parte hartzera animatu nahi zaitugu.

**40€
URTEAN**

30 urte baino gutxiago dituzu?
Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!

25 € / URTEAN*

* 30 urte betetzean automatikoki bazkideztza arrunta izatera pasako da

ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noa.ua Kultur Elkartea eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdikoa, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.
- Datorren urteko errenta alortopenean hobaria jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldiakaria astero posta arruntez jaso aukera.

ZOZKETA

Abendura bitarte bazkide egiten bazara, Usurbilgo komertzioetan erabiltzeko 150 €-ko erosketa bonoaren zozketan parte hartuko duzu.

3 modu dituzu bazkide egiteko:



Bete beheko inprimakia eta bulegora ekarri



Webgunearen bidez
noa.ua.eus/bazkideztu



Telefonoz
943 360 321

Izena

Abizenak

Nortasun agiria

Helbidea

Herria

Posta kodea

Telefonia

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia (IBAN)

Bazkideztza mota

☐ Arrunta (40 €) ☐ <30 urte (25 €)

Jaiotze data

noa.ua.eus

Albisteak iruditan

Kili-kolo Kalezarko Gau Beltza

Osteguneko bilera egin ostean, kokolan da Kalezarren antolatzeak diren Gau Beltza. Jende gutxi batu da bileretan eta egin ez egin, zalantza dute antolatzaileek. Herritarrak animatu nahi dituzte hurrengo bileretara antolatuta daukaten plana aurrera eraman ahal izateko.

Euskal Herrian Gau Beltza ospatzen zuten arbasoek, eta hainbat herri mugimendu lanean hasita daude atzera gurera ekartzeko eta egungo bizimodura moldatzeko. Herri batzuetan, azken urteetan prestatu dute Gau Beltz berezia eta kalezartarrek bide hori hartu nahi dute. Ibilbide berezi bat prestatu dute auzoan barrena ipuin-kontaketa eta jolasak uztartuko dituen. Hala ere, hori guztia ahalbidetzeko jende gehiagoren beharra nabarmendu dute.



Herritarrak animatu nahi dituzte hurrengo bileretara, antolatuta daukaten plana aurrera eraman ahal izateko.

Laburrean

1945ean jaiotakoen bazkaria, urriaren 2an

Urriaren 2an bilduko dira Artzabal jate-txean. Bertara joan nahi duenak bi telefono zenbakiotako batera deitu eta izena eman dezala irailaren 24a baino lehen: 645 711 033/ 670 574 910. "Urriaren 2an ikusi eta ondo pasako dugulakoan, agur bat".

1952an jaiotakoen bazkaria, urriaren 22an

Lukainkategi jatetxean ospatuko dute urriaren 22an, 1952an jaiotakoen topaketa, bazkari eder baten bueltan. Izena emateko epea hilabete horretara arte, urriaren 15era bitarte zabalik izango dute. Apuntatzeko deitu 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

Katekesi taldean izena emateko epea

2. mailatik aurrera: Haur eta gaztetxoek korreoz iritsiko zaie izen-emate orria eta modu telematikoan egin eta entregatu beharko dute.

1. mailako haurrak: Emailaz salbatoreparrokia@gmail.com edo telefonoz 943 361 239. Izena emateko azken eguna: irailak 25.

noaqua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Luis Aranalde

Irabazleak eta galtzaileak

Zazpi hilabete igaro dira Ukrainako gerra hasi zenez geroztik. Hori dela eta, kaleetan, merkatuetan eta komertzio zentroetan gehien entzuten den kexa prezioen igoera da. Batzuen esanetan gobernuaren errua da, beste batzuentzat energia enpresena, beste batzuen ustez espekulazioarena. Kritikoentzat Ukrainako gerra da une estu honen kausa.

Eta gerra hau zenbat eta gehiago luzatu, galerak gero eta gehiago izango dira ukrainarrentzat, errusiarrentzat, munduko gosetuentzat eta planetarentzat. Garbi dago gaur egun zeintzuk diren irabazleak eta galtzaileak.

IRABAZLEAK: gerra guztietan gertatzen den gisa, arma fabrikatzaileak dira. Arma industria da agian negozio-rik borobilena munduan. Sistema ekonomikoarentzat beharrezkotzat jotzen dute gerra. Norbaitek esaten zuen bezala: ez badago gerrarik, probokatu egin behar dira. Gerrak sortzen duen sufri-mendua ez zaie axola arma fabrikatzaileei. Eta gerra nuklear batek suntsi dezake planetaren bizia. Hau da gizar-tearen arrisku handiena.

Lotsagarria da munduan armetan 200 aldiz gehiago



“Gerra hau zenbat eta gehiago luzatu, galerak gero eta gehiago izango dira ukrainarrentzat, errusiarrentzat, munduko gosetuentzat eta planetarentzat”.

LUIS ARANALDE

“Isil bitez armak!”, zioen Aita Santuak lehengo batean. “Jainkoa bake zaleekin dago eta ez indarkeriaren defendatzaileekin” (...). Eta honela bukatu zuen bere hitzaldia: “Guduak ez dira amaitzen armak bidaliz, negoziazio diplomatikoak lantzen saiatuz baizik”

gastatzea heziketan, ikerketan, pobrezia eta gosea gainditzeko baino. NATOk ere asko irabazi du, inoiz baino indartsuago dago; 400.000 soldadu dauzka borrokarako prest. Energia enpresek (gasa, petrolio, argindarra...) ere etekin

handia atera diote gerra egoera honi: %350 gehitu dira beren irabaziak.

GALTZAILEAK: lehenik eta behin, ukrainar herria, inbasio honek gogor kolpatua, utziaz bidean hildako, zauritu, desplazatu, errefuxiatu piloak. Errusiak herriak ere asko galtzen du, Mendebaldeko oztoko ekonomikoak direla eta, zailtasun handiak sufritzen ari da. Komunikabideak larri dabilta Kremlinek jarritako zentsuragatik. Errusiak jarritako zigorrak direla eta Europako jendea ere asko sufritzen ari da eskasarengatik eta garestitzearengatik.

Planetak ere galtzen du bonbardaketek eragiten duten lurraren beroketa eta kutsaduragatik. Eta azkenik, munduko txiroak dira galtzaile nagusienetakoak: ia janaririk ez eta iristen zaien apurra oso gares-

tia.

Beste behin, Aita Santuak gerraren amaiera eskatu die. Angelusa errezatzerakoan azaldu du bere nahia eta baita kritika zorrotzak egin ere guda eragin dutenei. “Gerrak ez ditu herriak eragiten; gerra eragiten dutenek gizadiak ahazten dira, armen logika diabolikoan jartzen dute konfiantza osoa. Jende arruntak bakea nahi du; armen merkataritza eskandalua da; herriko pertsona soilek pagatzen dute gerraren zoramena”.

Gerra gelditzen saiatzeko asmoz, Putini bilera eskatu zion, baina momentuz ez du erantzunik jaso. Ukrainako gerra armamentuak probatzeko erabiltzen ari direla salatu du.

“Isil bitez armak!”, zioen lehengo batean. “Jainkoa bake zaleekin dago eta ez indarkeriaren defendatzaileekin. Lehen esan nuen hirugarren mundu gudan sartu ginela, zatika bazen ere; gaur esan dezakegu “erabatekoa” dela eta pertsonentzat eta planetarentzat arriskuak gero eta handiagoak direla”. Eta honela bukatu zuen bere hitzaldia: “Guduak ez dira amaitzen armak bidaliz, negoziazio diplomatikoak lantzen saiatuz baizik”.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil



Antxeta

TABERNA

egunero irekitzen dugu!

eguneko menua · asteburuko menua
· karta · oilasko erreak, hanburgesak..
paellak enkarguz!



619 40 91 98

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 71 38 03

Zirimarak hezitzaile bat behar du

Urriaren 1etik ekainaren 15era astean 7 orduz Eskola Kiroleko gainerako hezitzaileekin elkarlanean jarduteko. “Deialdi hau lan poltsa osatzeko baliatuko da eta ondorengo kontratazioak egiterako kontutan izango dugu”. Lanpostuarekin lotutako lan-esperientzia izatea eskatuko da: gorputz adierazpenaren arloan, kaleko zein naturako joko-jolasetan edota aisialdiko zuzendari edota hezitzaile moduan.

Honakoa eskatuko da baita: jarduera fisikoa edo hezkuntzarekin lotutako gradua edo goi mailako zikloa izatea, aisialdiko zuzendari titulua edota aisialdiko begirale titulua izatea, baita EGA edo euskal hiztuna izatea ere eta usurbildarra izatea. Emakumeek lehenetasuna izango dute.

Curriculumak bidali

Curriculumak irailaren 23a baino lehen helarazi elkar-tea@noaua.eus helbidera edo NOAUA! K.E.-ren egoitzan utzi; “bulegoan utziz gero, gaineratu zuen helbide elektronikoa curriculumean”.

Ekintzaileentzako dirulaguntzak

Irailaren 30era arte aurkeztu daitezke eskabideak, Usurbilgo Udalaren bi deialdiotara:

Hasiz Hazi Beka

■ Xedea: Kabien urtebeteko egonaldia diruz laguntzea proiektu bat garatzen ari den



Curriculumak irailaren 23a baino lehen helarazi elkar-tea@noaua.eus helbidera edo NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan utzi.

ZIRIMARA

“Lanpostuarekin lotutako lan-esperientzia izatea eskatuko da”

Beterri-Buruntzako ekintzaileari zuzendua. Gehieneko zenbatekoa, 1089 euro.

Merkataritza lokal hutsetan jarduera ekonomiko berri bat jartzeko

■ Xedea: lokalaren alokairu edo erosketa gastuak ordaintzeko laguntza.

■ Laguntza: gehienez 5.500 euro hasierako gastuetarako. Gehienez 300 euro hilero alokairua lehen urtean ordaintzeko, gehienez 200 euro bigarren urterako.

■ Informazio gehiago: martxoaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Ikastaroak Lanbide Eskolan

Lanbidek ehuneko ehunean lagundutako ikastaro eskaintza

iragarri du Zubietan kokaturiko ikastetxeak langile zein langabetuentzat. Lan-mundura begirako prestakuntza ikastaroak dira, fabrikazio mekanikoa, administrazioa eta finantzak, instalakuntzen mantentzea, efizientzia eta energia berriztagarriak, eta elektrizitatea alorretakoak.

Informazio gehiago hemen:

943 364 600
eskola@lhusurbil.eus
lhusurbil.eus

209 langabetu abuztuan

Uztailean baino 6 langabetu gehiago, 209 guztira abuztuan Usurbilen. Osasun krisialdi betean ginela langabetu kopuruak goia jo zuen datutik urrun halere; 299 langabetu zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak 2020ko uztailean udalerri honetan. 78 gizonezko eta 125 emakumezko langabetu zenbatu dituzte iragan hilabeteetan. Aldiz,

ohiko joera hautsi da kontratazioan abuztuan; gizonezkoak baino (154) Usurbilgo emakumezko gehiago (172) kontratu dituzte iragan hilabeteetan. 326 kontratu erregistratu ziren abuztuan udalerri honetan, gehienak (278) aldi baterako.

Igoera orokorra

Igoera orokorra izan da baita; Buruntzaldean, 72 langabetu gehiago zenbatu dituzte abuztuan, 3.016 guztira. 763 gehiago Gipuzkoan, orotara 29.873.

Emakumeen

ahalduntze eskola ere martxan da

Bi ikastaro iragarri ditu Usurbilgo Udalaren Parekidetasun Sailak, Emakumeen Ahalduntze Eskolaren baitan. Biodantza ikastaroa batetik, Eider Zuriarrainen eskutik, urriaren 4tik abenduaren 20ra. Astearteetan izango dira saioak, 15:30-17:00 artean Oiarde Kiroldegian. Kontxi López Soriaren eskutik bestalde, “Nork bere burua zaintzen eta maitatzen ikasten” erdaraz eskainiko duen ikastaroa urriaren 6tik abenduaren 1era, ostegunetan, 17:00-19:00 artean Potxoenean. Ikastaro batean zein bestean izena emateko epea, irailaren 30era arte, parekidetasuna1@usurbil.eus helbidean edo 943 377 110 telefono zenbakian. Ahalduntze eskolako ikastaroetan usurbildarrek izango dute lehenetasuna.



TicketBai sistemaren etorrera prestatzen ari dira herriko merkatariak

TicketBai diru-sarrerak kontrolatzeko jarri duten sistema berrira moldatzen hasi dira modu batean edo bestean herriko merkatariak. Euskal Autonomia Erkidegoan ezinbestekoa izango da jarduera ekonomiko bat aurrera daramaten guztiek sistema honetara jauzia egitea. Merkatariak e-tiketa edo faktura egin beharko dute salerosketa guztietan, zuzenean Ogasunari diru-sarrera guztien berri emateko.

Gipuzkoako Foru Aldundia burubelarri ari da lanean sistema berri hau probintzia osoan zabaltzeko eta urte amaierarako ia sektore guztiek sistemaren barnean egin beharko dute lan. Herriko merkatari batzuekin izan da NOAUA! euren prozesuaren berri izateko eta herriko merkataritzako orokorraren lagin bat lortzeko. Horra hainbat merkatari esandakoak.

Errazkin Bike Repair: “Egin beharrekoak egin ditut jada, badaezpada”

Errazkin Bike Repair dendan bizikletak konpondu eta bizikletentzako materiala saltzen dute. Bi ardatz ditu, beraz, eskulana eta salmenta. Negozioa martxan jartzean denetariko bizikletetan zeukaten fokua jarrita, baina orain bizikleta profesional eta erdiprofesionalekin soilik egiten dute lan. Sektore honetan, berehala TicketBai sistema martxan jarri beharra daukate, eta herriko saltoki honetan jada eman dute horretarako jauzia.

NOAUA! TicketBai sistema erabiltzen hasi zarete jada?

Errazkin Bike Repair: Bai, atzo



Errazkin Bike Repair bizikleta dendan duela bi aste hasi ziren Ticket Bai sistemarekin lanean.

ERRAZKIN BIKE REPAIR

“TicketBairen kontu honekin gehiago kontrolatu nahi gaituzte, hori begi-bistakoa da”

bertan jarri zidaten (duela bi aste). Uste nuen irailaren 1ean aktibatu behar nuela, baina lagun batek esan dit urrian aktibatu behar dela. Nik badaezpada jada egin ditut lan horiek, baina daten kontuarekin nahiko galduta ibili gara.

Sistema berrira jauzi egiteko prozesua erraza da?

Kontabilitateko programa bat daukat eta haiek jarri didate dena martxan. 140 euro ordaindu ditut urteko kuota modura eta dena jada prest jarri didate. Alicanteko enpresa bat da eta haiek arduratzen dira kontu horiez. Beraz, haiek TicketBai aktibatzeak aukera ematen zidaten zuzenean eta halaxe

egin dut. Programa eguneratu eta TicketBai hori martxan jarri, ez dut besterik egin behar izan. Nire tiketak eta fakturak zuzenean Ogasunarekin lotuta daude orain, edo hala beharko luke behintzat. Nik dena betiko moduan egiten jarraitzen dut, baina faktura zuzenean pasatzen da orain. Badaezpada egun hauetako batean Ogasunera deituko dut dena ondo dagoela ziurtatzeko, hilabete bukaera edo.

Diru-laguntzak eskatzeko aukera ere bazegoen gastuei aurre egiteko.

Nik ez dut sekula diru-laguntzarik jaso negozioarengatik eta oraingoan eskatu ere ez dut egin. 2013an ireki nuen negozioa krisialdi betean, eta orduan ere ez nuen inolako laguntzarik jaso. Guk orokorrean ez dugu diru-laguntza zuzenik jasotzen eta herrietako merkataritzak erabat burumakur dago

momentu hauetan. Norbaitek negozio bat martxan jarri nahi duela esango balit aurrera ez jarraitzeko esango nioke. Erabat itota gaude.

Egunerokotasunean aldaketarik somatu duzu?

TicketBairen kontu honekin gehiago kontrolatu nahi gaituzte, hori begi-bistakoa da. Ez nago batere beldurtuta, orain arte kontuak behar bezala eraman ditut eta aurreko urteetakoarekin alderatuta datorrenean ere zifra antzekoak izango ditut.

Orain arte kontuak horren modu zorrotzean eraman ez dituztenentzat itogarria izango da sistema berri hau eta agian, zenbaitentzat ondorio larriak ere izango ditu. Lehenetik ere erabat zapalduta dagoen sektoreari min gehiago egin nahi diote eta horrela jarraitzen badugu, jende askok itxi egin beharko duen beldur naiz.

Ixabel Esnaola estetika zentroa: “Guk azken momentura arte itxarongo dugu”

Ile-apaindegi eta estetika zentroak lasaiago dabilta TicketBairen kontuarekin. Ixabel Esnaola estetika zentroan ere aldaketa egin behar dute, baina denboraz lasai dabilta oraindik. Izan ere, gehiengoek ez bezala, 2023ko apirilera arteko epea dute TicketBai erabiltzen hasteko. Beraz, hauek lasaiago dabilta jauzia ematerako orduan.

NOAUA! TicketBai sistema erabiltzen hasi zarete jada?

Ixabel Esnaola estetika zentroa:

Ez, guk azken momentura arte itxarongo dugu. Apirila bitarteko epea daukagu gure sektorean eta oraindik denbora asko falta da. Hasiera batean urrirako martxan izan behar genuela esan ziguten, gero urte bukaerarako eta orain, berriaz, apirilerako. Horrenbeste joan-etorrirekin nahiago dut azken momentura arte itxaron



Argazkia: Gertuago

Ixabel Esnaola estetika zentroan esan digutenez, euren sektorean “apirila bitarteko epea daukagu TicketBai ezartzeko. Oraindik denbora asko falta da”.

IXABEL ESNAOLA

“Bezereok ohi bezala ordainduko dute eta haientzat ez da ezer aldatuko”

aldaketa gehiago egiten badi-
tuzte ere.

Prozesua erraza da?

Ez naiz informazio gehiegi biltzen saiatu. Aldaketatxo batzuk egin beharko ditut beharbada, baina erabakietan aldaketak egin eta egin ari direnez, ezin jakin azkenean zer egin beharko dugun. Momentuz ez nau gaiak batere kezkatzen.

Diru-laguntzak

eskatzeko

aukera ere bazegoen gastuei aurre egiteko.

Duela hilabete batzuk sistema berri horretan sartzeko ordenagailuan aldaketak egin behar zirela eta, aritu nintzen izugarritzko “papeleoa” egiten, eta ondoren martxan jartzeko data eta egin beharrekoak aldatu egin zituzten. Beraz, esperientzia horretatik ikasi dut epea gertu dagoenean hasi behar dudala mugitzen.

Egunerokotasunean aldaketa handia izango dela uste duzu?

Ez dut aldaketa berezirik espero. Sistema aldatuko dute eta zuzenean faktura guztiak Ogasunera joango dira, besterik ez. Gure eguneroko lanean bezereok ohi bezala ordainduko dute eta haientzat ez da ezer ere aldatuko. Guretzat automatizazio lan modukoa egingo dute, baina funtsean aldaketa handiegirik gabe.

Barazar ostalua: “Esan digutenez, egokitzen prozesua ez da ematen duen bezain sinplea eta erraza”

Zubietako Barazar nekazal etxe eta tabernak urteak daramatza Zubietari bizia ematen. Tabernetara ere iritsi da, ordea, TicketBai egitaspora jauzia emateko garaia eta oraindik hilabete batzuk badituzte ere, aldaketa egiten hasteko lehen urratsak ematen ari dira nagusiak.

NOAUA! TicketBai sistema erabiltzen hasi zarete jada?

Barazar: Ez, oraindik ez. Azarorako egin beharra daukagu eta badirudi azken momentuan ibiliko diren horietakoak izango garela. Gure negozioak



Argazkia: Nekatur.

Barazarren teknikariaren zain dira beharrezko egokitzen prozesua egin ahal izateko.

bi ardatza ditu: nekazal etxea eta taberna. Nekazal etxearena eginda dago dena, martxan jartzea baino ez da falta, tabernan berriz makinei software-a aldatu behar zaie. Abisatu diogu teknikari aldaketa hori egin dezan, baina oraindik ez da etorri.

Prozesua erraza da?

Nekazal etxerako ez dugu ezer egin behar izan. Internet bidez egiten da salerosketa eta zentzu horretan ez zegoen ezer berezirik egin beharrik. Tabernakoan ere uste dugu software-a aldatzea baino ez dela, hala ere, jendeak

esan digu ez dela prozesua ematen duen bezain sinple eta erraza. Guk momentuz teknikoari deitu diogu, hori baita orain egin behar duguna. Guk dakigunez ez da ezer gehiagorik egin beharko dena martxan jartzeko, baina ez dakigu oso ondo nola doan prozesua. Lehen esan bezala, azken momentuan ibili beharko dugu.

Egunerokotasunean aldaketa handia izango dela uste duzu?

Behin instalazioa egitean eta martxan jartzean ikusi beharko da hori, baina printzipioz eguneroko lanean ez dugu aldaketa handiegirik espero.

Juantxo burdindegia: “Ez dut dena azken momenturako utzi nahi”

Burdingintzari lotuta lan egiten dute Juantxo burdindegian. Margoketak egiteko materiala, sukaldeko erramintak, elektrizitate produktua eta beste hainbat produkturen salmentaz arduratzen dira. Beste dendari asko bezala, TicketBai erabiltzeko azken txanpan sartu dira.

NOAUA! TicketBai sistema erabiltzen hasi zarete jada?

Juantxo burdindegia: Ez, oraindik ez. Dena prest jartzen ari naiz. Azarorako uste dut, derrigorrez erabili beharko dugun sistema da eta martxan jartzeko beharrezkoa den guztia prestatzen ari naiz. Ez dut dena azken momenturako utzi nahi gero arazorik ez izateko.

Prozesua erraza da?



Argazkia: Gertuago

“TicketBai martxan jartzeko beharrezkoa den guztia prestatzen ari naiz”.

JUANTXO BURDINDEGIA

“Hasiera batean ez nuen ezer berririk behar, baina azkenean ia makinaria guztia aldatu behar izan dut”

Hasiera batean ez nuen ezer berririk behar, baina azkenean

ia makinaria guztia aldatu behar izan dut. Tiketak prestatzeko makina eta diru-kontuak eramateko erabiltzen dugun guztia aldatu behar izan dut. Ordenagailuak ere arazoak zituenez programa berria instalatu eta erabili ahal izateko. Hasieran ez nuen uste aldaketa hauek guztiak egiteko beharra izango

nuenik.

Horrez gain, sinadura elektronikoa izatea falta zait dena martxan jarri ahal izateko. Orain arte ez dut sinadura elektronikoren beharrik izan, eta beraz, ez neukan. Hori da nagusiki egiteko falta zaidana.

Diru-laguntzak eskatzeko aukera ere bazegoen gastu horiei aurre egiteko.

Nik ez dut eskatu. Ez naiz diru-laguntzen oso zalea.

Egunerokotasunean aldaketa handia izango dela uste duzu?

Horixe bera galdetzen aritu naiz beste merkataria batzuei. Kontuak eramaterako orduan badituzte zalantza batzuk funtzionamenduari buruz, baina behin martxan jarrita ikusi beharko dugula iruditzen zait.

Otar-Goxo elikagaiak: “Ordenagailuko softwarea eta lanerako erabiltzen ditugun bi makina aldatu behar izan ditugu”

Herrian janari dendak baditugu, eta horiei ere zuzenean eragin die TicketBai sistema jarri beharrak. Azaroa bitarteko epea dute martxan jartzeko eta betekizun guztiekin lanean hasateko. Otar Goxon jada martxan jarri dute denborarekin ibiltzeko.

NOAUA! TicketBai sistema erabiltzen hasi zarete jada?

Otar-Goxo: Bai, oporretatik itzuli eta martxan jarri dugu. Azarorako geneukan epea jarrita, baina dauzkagun zailantzak denborarekin argitu eta gerora arazorik ez izateko pixka bat aurreratzea erabaki genuen.

Sistema berrira jauzi egiteko prozesua erraza da?



Argazkia: Gertuago

“Oporretatik itzuli berritan hasi dira TicketBai sistemarekin lanean.”

OTAR-GOXO

“Antzeman duguna da tiketa askoz ere luzeagoa dela orain”

Ordenagailuko softwarea aldatu behar izan dugu eta lane-

rako erabiltzen ditugun bi makina ere aldatu ditugu. Haragia pisatu eta mozteko makinak.

Diru-laguntzak eskatzeko aukera ere bazegoen gastuei aurre egiteko.

Harategiko bi makinak aldatzeko laguntza eskatu genuen

duela hainbat hilabete eta orain eskatuko dugu softwarearena.

Egunerokotasunean aldaketarik somatu duzu?

Astebetetxo baino ez daramagu TicketBai honekin lanean eta oraindik zaila da ezer argirik esaten. Antzeman duguna da tiketa askoz ere luzeagoa dela lehen izan ohi zena baino. QRa dauka azpian eta esan digutenez, QR horren bidez jakin dezakezu ea salerosketa hori jada Ogasunak jaso duen edo ez.

Bezeroek behintzat horri ez diote erreparatu ere egiten eta askok gainera, hemen bertan daukagun zakarrontzira botatzen dute tiketa ez dutelako behar. Badute konfiantza guga.

Santueneko jaiak indartsu itzuli dira



Balkoirik apainena Lucia Balserarena izan da. Alde handiarekin nagusitu zen.



Santuenea Elkartekoak omendu zituzten urteotan eginiko lanagatik.



Manu Rios, tortilla irabazlea esku artean duela.



Igandean, zirku tailerrean parte hartzeko aukera egon zen.



Kirol hau halterofilia omen da. Horrez gain, ba al dakizu zein den pisu-jasotzailearen itzal zuzena?


Itzalak



Kolorezta ezazu zure gustura.

Hara! Jauzi batetik bestera lau gauza galdu ditu Maripurtzilek. Gainera, elementu berri bat agertu da. Ikusten al dituzu?

Jauziak



Zenbat?

Etxeko patata-tortillarik onenak Pellozirik egiten ditu. Hiru patata, lau arrautza, olio, gatz eta tipula behar ditu tortilla bakoitzeko.

Hemen dauzkan gaien arabera, zenbat tortilla aterako zaizkio?





1 Puzzle-zati hauetatik zortzik irudia osatuko lukete baina **Puzzlea** beste laurak engainagarriak dira, ez dira zehatz-zehatzak. Bereiz itzazu.

Ui, ene, hau da pareta... Jarri irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta hiru esamolde azalduko zaizkizu.

Zeeer?!



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

									
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
									
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
									
U	V	W	X	Y	Z	.	,	!	?

Irubide oroimen gune izango da aurrerantzean

Faxistek hil eta lurperatu zuten herritar andanaren oroimenez, hala dio Irubiden ikusgai duzuen oroigarriak. “Tokiaren ezaugarri industrialak islatu ez ezik, nolabait hemen hil zituztenek jaso zuten bala eta metraila ere sinbolizatzen du. Burdinezko blokea fusilatzen zituzten eremura zuzendua dago”.

Ibilgailuen zeharkalekua den ingurunea sarraski ikaragarri batena izan zen 1936ko gerran. Hala dio oroimen historikoa berreskuratzeko lanean ari den Usurbil 1936 elkarteak. “Horma baten antzekoa zegoela eta han tiroz hil eta gero, malkar batean behera botata utzi omen zuten gizon pila” edo metraila hotsak entzun zirela eta “piloa hil zituzten” dioten lekukotzak. Ezin jakin nortzuk, ezin jakin zenbat. Horregatik Irubideko oroigarriak ez du fusilatuen izen-abizenik.

Baina Usurbil 1936 elkartetik nabarmendu zuten moduan izana bai ordea eta “hori da gure iritziz, bizirik gorde behar duguna memorian”. Hala adierazi zuten Irubiden fusilatutako zituztenak oroitzeko tropa faxistak Usurbilen sartu zire-



Usurbilgo udalbatza osatzen duten EHBildu, EAJ eta PSE talde politikoei adierazpen bateratua plazaratu zuten Irubiden. Usurbilgo alkatearekin batera, Eneko Goia Donostiako alkatea ere igandeko omenaldian izan zen.

HEREDEROREN SENIDEAK

“Eskerrik asko demokrazia eta askatasuna defendatu zuten pertsonak gogoratzeagatik”

netik 86 urte bete ziren irailaren 18an aipatu fusilatzeen eremuan bertan ospatu zuten hitzorduan. “Inguru honetan jazoera latzak, izugarrikeriak gertatu ziren”, 1936ko gerra garaian. Aurrerantzean oroimen gunea izango da, laugarrena, beste hiru gune finkatu baitituzte azken urtean; Meagan, Aginagako hilerrian eta Udarregi Ikastolan, “errepubli-

karen aurka armen bidez matxinatutakoek hil zituzten gure hainbat herrikide oroitzeko”.

Oroitzapenerako gunea

Irubiden ere bai. Zantzu askoren arabera, bertan fusilatutako baitzituzten Jose Heredero Pinela usurbildarra eta Juan Antonio Irulegi Ulanga andoaindarra. Herederoren senideek hartu zuten hitza Irubideko oroimen ekitaldian, eskerrak helarazteko, “diktadura frankistan sufritu zuten pertsonak, demokrazia, askatasuna defendatu zuten pertsonak gogoratzeagatik”. Senideon esanetan, “memoriarik gabe ezin

garelako bakean elkarbizi, ezin dugulako bizi gizarte baketsu aske eta demokratiko batean, benetan eta bihotzez, eskerrik asko denoi”. Hildakoak duintasunez agurtzeko eskubidea aldarrikatu zuten. “Amonak ezin du hemen egon, nire amak ere ez, haiek ez dute aukera izan duintasunez haien hildakoak agurtzekoa. Baina esan nahi dut aurrera jarraitzeko balorea eta gu gorrotorik gabe hezteko modua izan dutela”, adierazi zuen Jose Herederoren bilobak. Antzeko egoera bizi dutenekin “partekatzen dugu bihotzez haien mina eta haien senideez ere oroitzen gara”.

“Egian oinarritutako memoria behar dugu”

Senideekin batera, Usurbilgo udalbatza osatzen duten EHBildu, EAJ eta PSE talde politikoei adierazpen bateratua plazaratu zuten Irubiden. “Toki mingarri hau askatasun demokratikoen defentsarako, bake eta bizikidetzaren balioak transmititzeko eta oroitzapenerako gune izatea nahiko genuke”.

Memoria aldarrikatzetik lantzerantz igarotzearen garrantzia nabarmendu zuten. “Egian oinarritutako memoria behar dugu”, eskatu zuten, “herritarrek osatutakoa, bizia, testigantzez josia”. Le-

kukotasunak gaketzat jotzen dituzte udal taldeok. “Lekukotasun haiengatik ez balitz, gorpu asko bide bazterretan jarraituko zuketelako. Oraindik badira asko tamalez. Haiei esker, haien adore eta ekarpenari esker, gai izan gara duintasuna itzuli, memoria berreskuratu eta egia zabaltzeko eta basakeriaren eta gerraren leku izan ziren horiek, oroimen leku bihurtzeko”. Horregatik aitortza egin nahi izan zieten, “gerraren basakeria guztien testigu izan eta izua barruraino sartuta izanagatik ere, sistema

frankistari eta inposatutako bazterketari, isiltasunari eta ahanzturari aurre eginez, ikusitakoa kontatzeko ausardia izan duten guztiei”. Baita Usurbil 1936 elkarteari, urteotan egin duen lanagatik.

Esker onez

Oroimen historikoa berreskuratzeko lanean ari den taldeak eskerrak helarazi zizkien “testigantzak jaso eta jasotzen segitzen dutenei, 1936 eta ondorengo garaitako memoria berreskuratzeko laguntzen gaituzten herritar eta erakundeei,

bereziki Udalari. Gaurko ekitaldia prestatzen lagundu diguten udal langile eta herritarrei eta nola ez, bertan partehartu duzuen guztioi; txistulari, dantzari, adarjole, txalapartari, musikari, poeta, abeslari, bertsolari eta kazetari. Esker bereziak oroigarri hau eraikitzen aritu diren lagunei bere lan bikainagatik eta Fagor Ederlan enpresari, burdinezko blokea emateagatik”. Eskertza baita bertaraturikoei. “Zuei guztioi era kolektiboan memoria gune hau finkatzeagatik, mila esker”.

Txirikordaren bueltako jardunaldiak

Txirikorda ez da beste etxebizitza bat, Usurbilgo Udalak sarritan nabarmendu nahi duen mezua da. Hala baita, eta horren isla da argia izango dute asteburu honetarako, 2023an Ugartondon kokatuko den egitasmo honen bueltan, irailaren 23 eta 24rako Potxoenean Usurbilgo Udalak antolatu dituen jardunaldiek. Euskal Herriko nahiz Euskal Herrikan kanpo, belaunaldiartekotasuna edota Txirikordaren izaera komunitarioa jorratzen duten hainbat esperientzia ekarriko dituzte gure artera.

Truke modukoa izango da hitzordua; “Euskal Herri eta haragotik Usurbila esperientziak ekarri behar baditugu, Txirikorda kanpoan hainbat foroetan izan delako da”, Txirikordari lotutako prozesua dinamizatzen ari den Hiritik



“Kanpoan ikasi duguna eta egiten dena Usurbila ekartzea” erabaki dute Hiritik At! kooperatibak eta Udalak.

TXIRIKORDAREN INGURUKO JARDUNALDIAK

**“Potxoenean egingo dira
asteburu honetan”**

At kooperatibako ordezkari

Mikel Valeroren esanetan. Besteak beste, “Euskadiko Gazte Kontseiluaren jardunaldietan, hainbat herrietan emandako hitzaldietan eta Katalunian” ere aurkeztu baitute. Izaera komunitarioa eta belaunaldiarteko

tekotasuna jorratzen duten eta martxan diren esperientziak interesa piztu dute. Orain, ezagarrion bueltan “kanpoan ikasi duguna eta egiten dena Usurbila ekartzea” erabaki dute aipatu kooperatibak eta Udalak.

Esperientzien trukea

Bi jardunaldi egun finkatu dituzte irailaren 23 eta 24rako. Egitaraua aldizkari honen 18. orrialdean duzue. Lehenengoan belaunaldiartekotasuna jorratzen duten esperientziak bilduko dituzte mahai-inguru batean. Dakizueenez, 18-30 urte arteko eta 65 urtetik gorako herritarrak elkarbizitzen jarriko dituen esperientzia izanik, “elkarbizitza hori nola ematen den, zer arazo egon daitezkeen eta zer nolako potentzialtasuna dagoen ezagutu nahi dugu”. Horretarako, baitetik, boluntarioen laguntzaz bideratzen duten adinekoen zaintza esperientziak ekarriko ditu Matiak. Udalak sustatu baina herritarren partehartzea erakarri nahi duen “Hernanin martxan jartzen ari den auzo zaintza proiektua” ere ahotan hartuko dute. Egitasmo honen “bakardade ez hautatuan

dauden pertsonak laguntzea” du helburu. Saio partehartzailea izatea nahi dute, hausnarketarako, kezak agertzeko...

Biharamunean, hilaren 24an, etxebizitza komunitario eta kooperatiboen esperientzien txanda. Oreretan komunitatea saretzea xede duen gazteen etxebizitza komunitarioena eta Madrilgo Entrepatrios egitasmoarena. Entrepatrioseko bizilagunak etxe pribatuetan bizi dira baina kooperatiba bat osatua dute eta bertako kide dira etxebizitzetako erabiltzaileak izateaz gain. Proiektu guztiotan murgilduak dauden ordezkariak etorriko dira Potxoenean. Madrilgo esperientziaren kasuan baita. “Interesgarria iruditzen zitzaigun elkarbizitza horretan murgildua dagoen pertsona bat” gonbidatzea Valeroren esanetan. Azken saio hau, Txirikorda egitasmoa aurkezteko ere baliatuko dute.

Autogestioa ardatz

Hitzorduotan parte hartzera deitzen diete usurbildarrei eta modu berezian, Ugartondoko eraikin honen erabiltzaile izan daitezkeenei. Usurbilen ia 2.000 lagunek kolektiboa osatzen duten erabiltzaile potentzial hauei guztiei eskutitz bana helarazi die Udalak, jardunaldiotan parte hartzera gonbidatuz. Galdetegi bat ere eseki dute usurbil.eus/txirikorda atalean interesdunentzat.

Emantzipazio arazoak dituzten 18-30 urte arteko eta bakardade edota etxe barruko irisgarritasun arazoak dituzten 65 urtetik gorako herritarrak elkarbizitzen jarriko ditu erakitzeko lanak aurreratuak dituzten Ugartondoko Txirikordan, 2023tik aurrera. 16 etxebizitza guztira; zortzina kolektibo bakoitzarentzat. Zozketa bidez esleituko dira gazteenak,

Gizarte Zerbitzuen balorazio teknikoak erabakiko du 65 urtetik gorako artean nortzuk biziko diren etxebizitzotan. Belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioari lotutako erabilera arautuko duen ordenantza onartzekoa da Udala urriko udalbatzarrean. Behin betiko onartu ostean, urte amaieran etxeak esleitzeko prozedura abiatzea aurreikusten du udal gobernu taldeak. “Fase horretan pertsona horiekin hitz egin eta adostu nahi dugu Txirikordaren funtzionamendua eta kudeaketarekin lotutako arlo guztiak”, alkate Agurtzane Solaberrietak berri eman duenez. Bestela esanda, Txirikordaren komunitatea erakitzeko lanak hasiko dituzte. Finean halere, “Txirikorda etxe gestionatu bat izatea” nahi dute.

Susana Martin: “Nire ikastaroak adin guztietako herritarrei zuzenduta daude”

Einean Guraso Elkarteak ikastaro eskaintza zabalera prestatu du aurten: pintura eta eskulanak, yoga eta joskintza. Urtarriletik aurrera argazkilaritzari buruzko ikastaroa ere sor liteke, baina zehazteke dago oraindik martxan jarriko ote den. Eskaintzaren nondik norakoak gertuagotik ezagutzeko Susana Martin eta Katia Izquierdo elkarteak ki-deekin izan da NOAUA!.

NOAUA! Einean Guraso Elkarteak urtero antolatzen dituzue hainbat ikastaro. Aurtengoan zer eskaintzen duzue?

Susana Martin: Aurten yoga, pintura, eskulanak eta joskintza.



Susana Martin eta Katia Izquierdok Einean Guraso Elkartearen eskaintzaren nondik norakoak azaldu dizkigute.

Ikastaroak helduentzat baino ez dira izaten edo gaztetxoek ere parte har dezakete?

S. M: Nire bi ikastaroak bai pintura eta bai eskulanak adin guztietakoei zuzenduta daude. Normalean 5-6 urterekin hasten dira txikienak eta hortik aurrera nahi duten arte. Arratsaldeko taldeetan adin guztietako pertsonak nahastuta dauzkate, hau da, ez dauzkate haurren taldeak edo gazte-

SUSANA MARTIN

“Aurten yoga, pintura, eskulanak eta joskintza ikastaroak antolatu ditugu”

txoen taldeak edo helduen taldeak. Denek batera egiten dute lan. Goizetan, berriz, helduak baino ez dira aritzen. Haur eta gaztetxoak ikastolan egoten

dira, eta beraz, ordu horietan helduekin aritzen naiz. Astearte goizetan izaten dugu ikastaroa eta jende askok goiz zein arratsaldeko txandetan nahasian lan egin behar dutenez, aukera ona izaten da. Modu horretara, goizez behar dutenean asteartetan etortzen dira eta arratsaldez behar dutenean talde asko dauzkate. Oso interesgarria iruditzen zait belau-

naldi ezberdinetako pertsonak elkartzeko aukera hori, hurrek freskotasuna transmititzen diete helduei eta helduek pazientzia hartzen erakusten diete.

Katia Izquierdo: Ni yoga irakaslea naiz Sebasekin batera, eta gure ikastaroak helduei zuzenduta daude. Guk ez dugu hurrekin lan egiten. Goizez eta arratsaldez eskaintza zabala daukagu.

“Ikasle bakoitzak bere erritmoa darama”

NOAUA! Zuen ikastaroetan parte hartzen dutenek lehenetik ezagutza izaten al dute?

Susana Martin: Jubilatut berri dauden ikasle batzuk badituz beti jakinmina izan dutenak, baina sekula margotzen eta eskulanak egiteko aukerarik izan ez dutenak. Izugarritzko hobekuntzak egiten dituzte, zerbait oso harrigarria.

Katia Izquierdo: Ez, ez du zertan. Taldeek ez dute maila jakinik, hau da, bakoitzak egiten

duen lanaren arabera da eta beraz, bakoitzak bere erritmoa eramaten du. Taldeetan denetarik egoten da; batzuk zeroetik hasiera datozenak eta yoga praktikatzeko urteak daramatzatenak. Goizez, orokorrean, lasaiagoa izaten da.

Zein ordutegi eskaintza daukate aurten?

S. M: Nik astelehenetatik ostiral arte 16:45-18:00 izaten dut lehen taldea, eta gero, bigarren

taldea 18:15-19:45 bitarte. Asteartetan goizez ere talde bat izaten da 9:00-11:00. Joskintzaren kasuan, Ione Iruretagoiena da irakaslea eta astelehenetan arituko da Potxoenean bi orduko klasea eskaintzen. Posible da urtariletik aurrera oinarriko argazkilaritza ikastaroa ere sortzea Ibai Arrietaekin. Asmoa badu, baina lan kontuak direla eta, ez daki posible izango den.

K.I: Astearte eta ostegun bitarte aritzen naiz ni Usurbilgo talde-

kin. Asteartetan arratsaldean izaten ditugu 3 klase 15:45, 17:30 eta 19:30ean; asteazketan bezalaxe 16:30ean, 18:30ean eta 20:15ean. Ostegunetan, aldiz, goizetan talde bat izaten dugu 10:00etan eta arratsaldez bi, 14:30etan eta 19:00etan. Sebas, berriz, astelehen arratsaldetan 19:30ean, astearte goizetan 10:00etan eta ostiral arratsaldetan 18:00etan. Ordu eta erdiko klaseak izaten ditugu.

Katia Izquierdo: “Yoga klaseak modu pertsonalizatuan egin daitezke”

NOAUA! Zer egiten duzue ikas-taroetan?

Katia Izquierdo: Yogak hiru zutabe nagusi ditu: ariketa fisikoa, emozioen kudeaketa eta lanketa mentala. Aukerak ematen ditugu klaseetan maila gehiago eta gutxiago dutenentzat, bakoitzak egin dezakeena eta egin ezin duena neur ditzan. Beraz, klaseak modu pertsonalizatuan egin daitezke. Praktika fisikoari dagokionean, bakoitzaren gaitasun eta beharren arabera aukerak eskaintzen ditugu. Adibidez, oso malgua den norbaitek hori landuko du, jakina, baina agian indarra lantzea komeni zaio oreka bilatze aldera; eta alderantziz, malgutasunik ia ez duenari hori lantzea komeni zaio batik bat. Lanketa mentala ere egiten dugu, ariketak egin bitartean bakoitzak bere “zaratak” izaten dituelako buruan, eta horrek nekea sortzen du ezinbestean. Gorputzaren lanketaren bidez, lanketa mental hori ere egiten da zarata horiek murriztu ahal izateko. Arnas-keta ariketak ere egiten ditugu, hori ere oso garrantzitsua baita gainontzeko ariketei laguntzeko. Hiru ardatz horien arteko oreka bilatzen saiatzen gara. Pixkanaka egin behar den lana da eta egunero gauza berriak aurkitzen ditugu praktikan.

Susana Martin: Denetarik egiten saiatzen naiz. Pinturakoekin teknika eta euskarri ezberdinak probatzen ditugu ikasleek denetarik egiteko aukera izan



Katia Izquierdok adierazi digunez, “yogak hiru zutabe nagusi ditu: ariketa fisikoa, emozioen kudeaketa eta lanketa mentala”.

KATIA IZQUIERDO

“Yoga Bake Epaitegiaren alboan dagoen lokalean egiten da”

dezaten. Eskulan tailerrean ere berdin. Azken finean, denen gustuak eta nahiak ez dira berdinak eta sarri ideia batekin etortzen dira klaseetara eta bestelakoak probatuta hura ere izugarri gustatzen zaiela konturatzen dira edo lehen zeukaten ideia ez dutela horren gustoko edo dena delakoa. Denetik probatzea da interesgarriena.

Non egiten dituzue ikastaroak?

S.M: Elizatik behera doan kale horretan dagoen lokal batean aritzen naiz ni. Lokalak udalak uzten dizkigu, eta gure kasuan nahiko txikia da. Hori arazoa izaten da talde batzuetan, nahiz eta guk jende gehiago sartu nahi izan, ez direlako kabitzen. Udalak uzten dizkigun lokalak izanik, ikastaroak merkeagoak dira, bestela askoz ere garestiagoak izango lirateke.

K.I: Yoga Bake Epaitegiaren alboan dagoen lokalean egiten da, herriko lehen sarreran. Gure lokala ere oso txikia da eta itxaron-zerrenda ere izaten dugu batzuetan hori dela eta. Joskintza tailerrak Potxoenean egiten dituzte.

Euskaltegian matrikulatzeko garaia da

Irailaren 28ra arteko epea dago matrikulatzeko. Ohi bezala, euskara ikasteko maila guztiak, mintzamen saioak, jarraipen pertsonalizatua... eta gehiago eskainiko dute. Matrikulazio ordutegia: astelehenetik ostiralera goizez, 11:00-13:00 artean. Astelehenetik ostegunera, arratsaldez baita, 17:00-19:30 artean.

Informazio gehiago:

607 609 379
usurbil@aek.eus

Bota Punttuba bertso-eskola, martxan

Herriko bertso-eskolatik NOAUA!ri berri eman diotenez, “helduen taldea martxan” da jada. Aurrerantzean ostegunero bilduko dira, arratsaldeko 19:30ean Potxoenean, “bertsotan egiteko gogoia duten herritar batzuk”. Zaletasun honekin bat egiten duen orori bertaratzeko gonbita luzatzen diete.

Oiardo kiroldegiko izen-ematea irailaren 25ean itxiko da

Denboraldi berrirako ikastaro eskaintzan izen-ematea irailaren 25ean itxiko dute. Haur, gazte zein helduentzako igerilekuko nahiz areto jarduerak antolatu dituzte.

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 19/22
20170
USURBIL

Usurbil Döner Kebab
USURBIL
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK

Aginagako jaiak astebete barru hasiko dira

Itzulerena izan den jaien denboraldia agurtzeko, Aginagakoak ate joka. Irailaren 30etik urriaren 8ra ospatuko dira. Hemen aurrerapen moduan, urriko lehen asteburuko ekintzen egitaraua:

Irailak 30, ostirala

■ 18:30 Txupinazoa Eliza Zaharreko balkoian, pregoi eta brindisarekin.

■ 19:00 Txosna irekiera.

■ 19:00 San Praixkuetako argazki erakusketa.

■ 20:00 Txema Pikabearen liburu aurkezpena Eliza Zaharrean.

■ 21:00 Albertoren bakarrizketa Eliza Zaharrean.

Urriak 1, larunbata:

Oilasko Biltzaileen Eguna

■ 05:30 Oilasko biltzaileen gosaria.



Jaien hasierako txupinazoa irailaren 30ean arratsaldeko 18:30ean botako dute.

■ 06:00 Oilasko biltzaileen irteera Atarialde Elkartetik.

■ 11:30 Oilasko biltzaile txikien irteera Mapildlik.

■ 17:30 Karaokea Eliza Zaharrean.

■ 18:30 Jon Ostolaza eta Rakel Pujana trikitilarien saioa Eskola Txikiaren aurrean.

■ Ondoren, herri poteoa.

■ 21:00 Herri afari bikaina. Sarrerak irailaren 22ra arte Arraten; 30 eurotan helduenak eta 12 eurotan haurrenak.

■ 23:00 Txosna irekiera.

■ 23:30 Erromeria frontoian: Laiotz taldea.

■ 02:30 Euskal Rumba Eliza Zaharrean: Kilimak eta Dj Jotatxo.

Urriak 2, igandea

■ 16:00 XXXIX. Mus Txapelketa. Izen-ematea 15:30-16:00 artean Eliza Zaharrean.

■ 17:30 Haurrentzako tailerra: Zizka Mizka.

■ 19:00 Haragi egosi, txorizo banaketa eta sagardo dastaketa.

Urriak 4, asteartea:

San Praixku Eguna

■ 11:00 Meza Nagusia.

■ 12:00 Jubilatuen hamaiketako Aginaga Sagardotegian, bertsolariek alaituta.

■ 18:00 Herri kirolak frontoian, herritarren arteko erronka!

■ 19:30 Sardina eta Sagardo banaketa trikitilariz alaituta.

■ Bitartean, XXXVIII. Toka Txapelketa herrikoia eta buruhandi bizkor-bizkorrak!

■ Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

Plazan Bazan, 12/13 orrialdeetako soluzioak

Itzalak

Kirol hau halterofilia omen da. Horrez gain, ba al dakizu zein den pisu-jasotzailearen itzal zuzena?

Zenbat?

Etxeke patata-tortillarik onenak Pellozikir egiten ditu. Hiru patata, lau arrautza, olio, gatza eta tipula behar ditu tortilla bakoitzeko. Hemen dauzkan gaien arabera, zenbat tortilla aterako zaizkio?

Jauziak

Haral Jauzi batetik bestera lau gauza galdu ditu Maripurtzilek. Gainera, elementu berri bat agertu da. Ikusten al dituzu?

Kolorezta ezazu zure gustura.

PUZZLEA

Puzzle-zati hauetatik zortzik irudia osatuko lukete baina beste laurak engainagarriak dira, ez dira zehatz-zehatzak. Bereiz itzazu.

Ui, ene, hau da pareak... Jarri irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta hiru esamolde azalduko zaizkizu.

Zeeer?!

UMEAREN HASERREA EZ
DA IZATEN
LUZEA
KOMUNETIK
BAZKALTZERA
BADA DUT
ERGELA
DOLKIAK
ORDAINETAN
IZATEN DIRA!

ALFABETO

A B C D E F G H I J
K L M N O P Q R S T
U V W X Y Z

PUZZLEA

Puzzle-zati hauetatik zortzik irudia osatuko lukete baina beste laurak engainagarriak dira, ez dira zehatz-zehatzak. Bereiz itzazu.

Ui, ene, hau da pareak... Jarri irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta hiru esamolde azalduko zaizkizu.

Zeeer?!

UMEAREN HASERREA EZ
DA IZATEN
LUZEA
KOMUNETIK
BAZKALTZERA
BADA DUT
ERGELA
DOLKIAK
ORDAINETAN
IZATEN DIRA!

ALFABETO

A B C D E F G H I J
K L M N O P Q R S T
U V W X Y Z

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia, terraza. 688710916.

Alokairuan

Kaxkoan etxebizitza alokatzen da denboraldi motzetarako. Bi logela, egongela, sukalde-jangela balkoiarekin eta komuna. Altzariz hornitua eta sartzeko prest. Telefonoa/WhatsApp-a: 657770131

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziazkoa da. 649 429 416

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan

egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. 622396941 (Patricia).

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean

lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostirala iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jate-txean. 666 671 444

Lan eskaerak

Kurtsoan zehar klase partikularak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta haurrak zaintzen esperientziaduna. 679219805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrik emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanetan zein igeltserritan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila goizetan, arratsaldetan zein gauetan. 609 647 728

Umeak zaintzeko eta ingelesa irakasteko prest dagoen neska gaztea. 644 716 739

Adinekoen eta haurren zaintza lana edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Umeak zaintzeko prest dagoen

gazte euskalduna. Esperientzia badaukat. 688 73 43 44

Margoketa lanetan, altzariak zaharberritzen 30 urteko esperientzia. 626 10 70 76.

Erizain laguntzailea naiz eta pertsona helduak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko lan bila nabil. 672 587 671

Umeak zaintzeko prest. 695 184179 / aneseoane@gmail.com

BESTELAKOAK

Gutxi erabilitako lau gupil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

600 litroko altzairu herdoilgaitzezko (acero inoxidable) kupela daukagu salgai. Sagardoarekin erabilitakoa: 620024663.

San Estebanen (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdu dituenak Udaltzainetan dauzka jasotzeko.

**Zorionak Jare!**

6 urte beteko dituzu irailaren 27an. Muxu asko etxekoan partetik!

Pilota partidak**Usurbilen****Irailak 23 ostirala, Usurbilen**

■ 20:00 Gipuzkoako Txapelketa, eskuz binaka. Kadeteak 2. maila: Pagazpe-Lagunak.

Irailak 23 ostirala, Aginagan

■ 22:30 Gipuzkoako Txapelketa, binaka paleta gomaz. 2.mailan: Pagazpe-Loiolatarra.

Eskubaloio partidak**Oiardo kiroldegian****Irailak 24 larunbata**

■ 17:00 Usurbil KE kadete mutilak-Muzkiz.
■ 18:45 Usurbil KE senior mutilak-Loyola.

Irailak 25 igandea

■ 11:00 Andoainen: Andoain-Usurbil KE jubenil mutilak.

■ Oñatin (ordua eta eguna zehazteke). Oñati-Usurbil KE kadete neskak.

Nahia Azpiaz, selekzioarekin

Usurbil KE taldeko Nahia Azpiaz Zubeldiak euskal selekzioaren deia jaso du.

Goardiako farmaziak

Osteguna 22	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 23	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata 24	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Igandea 25	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Astelehena 26	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
Asteartea 27	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Asteazkena 28	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

Osteguna 29	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Ostirala 30	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Larunbata 01	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
Igandea 02	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda iraila

23 ostirala

- **Txirikorda jardunaldiak.** 18:00-20:00 artean, Potxoenean.
- **Plis, Plas, Txalo ta jolas: "Zirkobira".** 18:30ean, Artzabaldik Mikel Laboa plazara.

24 larunbata

- **Txirikorda jardunaldiak.** 10:00-13:00 artean, Potxoenean.
- **Kantu-jira.** 12:30-14:00 artean, Mikel Laboa plazatik abiatuta.
- **Akerra Eguna Txokoalden.**

25 igandea

Ostiral honetan 'Zirkobira', gazteentzako ikuskizun ibiltaria

Plis, Plas, Txalo ta Jolas ikuskizuna ekainean antolatu ohi dugu, ikas-turteari agur esan eta udako oporrei ekin aurretik. Ekaina ordea Plis, plas festa ospatu gabe igaro zenez, irailean egingo da haurrentzako ikuskizuna. Ostiral honetan, irailak 23, Zirkobira abiatuko da Artzabaldik. 18:30ean hasiko da kalejira eta Mikel Laboa plazan amaituko da.



Hankapaloak, ekilibristak, pailazoak eta akrobatak Artzabaldik abiatuko dira.

Irailak 23 ostirala

- "Zirkobira" ikuskizuna.
- Ordua: 18:30.
- Tokia: Artzabaldik Mikel Laboa plaza-
ra. Euria bada, frontoian.
- Nori zuzendua: haur eta gaztetxoei eta zirkua maite duen edonori.

Larunbatean, Akerra eguna Txokoalden

Egitarau oparoa prestatu dute: 16:00etan mus txapelketa (15:30ean izen-ematea) frontoian. 18:30ean Elektrotxorongo elektrotxaranga eta 21:30ean afaria (txartelak Aitzagan salgai, 10 eurotan). Ondoren, bertso saioa Hodei Munduate, Janire Arriabalaga eta Unai Azpirozekin. Gai-jartzailea: Amaia Agirre. Ondoren, kontzertuak: Ameba, Dj M&M eta Dj Akerra.

- "Ireki begiak! Ongi etorriak zirkuaren mundu ikusgarria! Hankapaloak, ekilibristak, pailazoak, akrobatak... Lagun itzazue ibilbidean zehar, eta bukaeran, ikuskizun paregabeaz gozatuko duzue".
- Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkar-
tea. Laguntzailea: Udala.

Usurbilgo kantu-jira bueltan da

Udako etenaldiaren ostean, plazara itzuli-
liko dira larunbatean Usurbilgo Euskal Kantu Taldeko kideak. 12:30ean abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. Hitzordura batu nahi duenak, ez dadila kantu-liburuxka eramateaz ahaztu.

Gainerakoan, astelehenero 18:00etan batuko dira Agerialdeko musika gelan, entsegu saioak egiteko.

Datozenak

Txirikordaren inguruko jardunaldiak

Irailak 23 ostirala, Potxoenean

- 18:30 Mahai ingurua: belaunaldi arteko esperientziak (Matia boluntarioria, Hernani auzo-zaintza).
- Zehaztasunak: "Txirikorda 2023an bertan martxan jartzea espero dugu. Elkarbizitza eta izaera komunitario berezia izango du, eta, horregatik, aurre-lanketa bat egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu".

Irailak 24 larunbata, Potxoenean

- 10:00-13:00 Hitzaldiak. Etxebizitza komunitario eta kooperatiboen esperientziak: Txirikorda proiektuaren aurkezpena; Erreterria, gazteentzako etxebizitza komunitarioak; Entrepatis (Madril).
- Zehaztasunak: "Txirikorda belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa gauzatzetik gero eta gertuago dago: 2023an bertan martxan jartzea espero dugu. Elkarbizitza eta izaera komunitario berezia izango du, eta, horregatik, aurre-lanketa bat egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Besteak beste, Txirikorda jardunaldiak egingo ditugu, etxebizitza komunitarioen eta belaunaldi arteko esperientzien ingurukoak".

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

PLIS PLAS TXALO ETA JOLAS "ZIRKOBIRA"

Ireki begiak!! Ongi etorriak zirko-mundu ikusgarrira!!
Hankapaluak, ekilibristak, pailazoak,
akrobatak... utzi pasatzen eta disfrutatu haiekin
batera egiten dituzten ikuskizunez.



Irailak 23, ostirala

18:30 Kalejira Artzabaldik abiatuta eta
amaiera Mikel Laboa plazan
(Eguraldi txarra bada frontoian)

noqua





Ofizioen Gida



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75 / 76

943 36 72 64

urdaintzi@euskaltel.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK

· BERRITZE LANAK

Fax: 943 24 34 80
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

Josue

Igeltseritza

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.

Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behe, Lasarte-Oria

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

GAR
GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL



Antonio URRUZOLA

AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Astasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE

Salsamendi Arregi, Iñaki

AROSZTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA

USURBIL

J. R. IBARGOEN S.L.

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoen-arotzgi.net jr.ibargoen@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76

ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

antenas Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI

APARICIO

DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL

Enrique Alonso

ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
Tfnoa.: 600 024 825

zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarainiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANDARRAK
· KONFINDATZAKO GREHIOAK · KOMUNEKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behe • 943 36 80 04

XNORGE TXIBI S.L.

KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33 - 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

maiz
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministroamaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39